

## **BALOREZKO PROPOSAMENA**

Climatic Revolution enpresak, aldaketa klimatikoaren aurkako ideiak eta proposamenak eskaintzea du helburu. Horretarako, hainbat zerbitzu eskeintzen ditu gehien kutsatzen duten enpresei zuzenduta, Coca-Cola eta Gas Natural Fenosa enpresei, besteak beste. Aipatutako zerbitzuak gure webgunearen bitartez kudeatu eta eskeiniko dira, eta beharrezko formakuntza, interesatuta dauden enpresen egoitzetan eskeiniko da.

Gure enpresako kideok lan handia egiten dugu aldaketa klimatikoa gai larria dela uste dugulako. Bezero talde zehatza izango dugun arren, gure proiektuaren erronkak ahalik eta publiko handienara zabaltzea dugu xede, izan ere, gizartearen ongizatea eta ingurugiroaren hobekuntza dugu helburu nagusizat.

Eroski-ko eta Euskaltel-eko enpresa lokalekin hasi eta beste nazioarteko enpresetara zabaltzea dugu helburu. Gure asmoa beraiekin elkarbanatu eta barien beharretara moldatuz, bere ekintzekin sortzen duten ingurugiro inpaktua murriztea da gure enpresaren helburua: enpresaren kide guztiak aldaketa klimatikoaren ondorioak ezagutu ditzaten formakuntza eman, enpresaren erantzunkizunaz jabetzeko dinamikak landu, plastiko kantitatea murrizteko estrategiak luzatu, birziklapen sistemak proposatu eta kontaminatu dezaketen produktuen erabilera murrizteko alternatibak proposatu.

Enpresa hauekin egindako praktika onak zabaldu eta bezero berriak lortzea espero dugu. Enpresa handiagoak diren bezeroak, ingurugiroan eragin bortitzagoa duten enpresak, alegia. Horrela, pixkanaka-pixkanaka enpresek aldaketak klimatikoan duten eragina murriztea lortuko dugu.

Ondorengoak dira lehiakideetatik bereizten gaituzten ezaugarriak:

- Ideia berritzailea da natura babesteko.
- Enpresei laguntza eskaintzen diegu naturarekiko jasangarritasun hobea izateko.
- Zerbitzu pertsonalizatuak eskaintzen ditugu, enpresa bakoitzaren

beharretara moldatuz.

- Formakuntza enpresen egoitzetan bertan eskeintzen dugu, enpresaren jarduera lehenengo pertsonan ezagutzeko eta bezeroekiko harremanetan gertutasuna sustatzeko.
- Plastikoen kontsumoa murrizteko teknikak eta birziklapena sustatzeko estrategiak proposatzen ditugu.
- Gure enpresako kide guztiak aldaketa klimatikoan adituak izateaz gain, sentsibilizazio eta kontzientzia handia dute gaiarekin.